

2. ATALA (bigarren zatia)

— Hau al da Amritzar? galdetu zuen soldaduak.

— Bai, eta hementxe eskatuko dizkigute txartelak —esan zuen bankariak, gerrikoan bila hasiz.

Kriseilua, egunsentiarekin, argitasuna galtzen ari ziren odol nahasiko zaindaria heldu zenean. Txartelak jasotzea lan mantsoa da Ekialdean, era guztietako leku bitxietan ezkututzen baititu jendeak. Kimek berea atera zuen, eta trenetik jaisteko agindu zion gizonak.

— Baina Umballara noa ordea —protesta egin zuen—. Gizon santu honekin noa.

— Infernura ere joan zintezke nigatik. Txartel hau Amritzarreraino besterik ez da. Alde!

Kim negar eta negar hasi zen, lama aita eta ama zuela esanez, bera zela lamaren zahartzaroaren makila, eta lama hil egingo zela berak zaintzen ez bazuen. Bagoi osoak erregutu zion zaindariari izan zedila errukiorra —bankaria batez ere izan zen etorri handikoa—, baina zaindariak hala ere kaira bidali zuen Kim. Lamak begiak keinatu zituen, ezin baitzuen egoera ulertu, eta Kim, ahotsa goratuz, negarrez hasi zen bagoiaren leiho ondoan.

— Oso pobrea naiz. Ama hil egin zitzaidan... aita hil egin zitzaidan. O, errukior zaretzen horiek, ni hemen uzten banaute, nork lagunduko dio agure honi?

— Zer... Zer gertatzen da? —galdetu zuen berriz lamak—.

Amritzarreko neska jaitsi zen trenetik bere gauzekin, eta harexengan finkatu zituen Kimek bere begi erneak. Bazekien bera bezalako damak eskuzabalak izan ohi direla.

— Txartel bat, tikkut txiki bat Umballarako...Zu, bihotzak urratzen dituzun horrek —neskak barre egin zuen—, ez al duzu karitaterik?

—Har ezazu martel bat.

— Hamar mila bedeinkapen —egin zuen oihu Kimek—.Tikkut-aren bila joango naiz.

— Txartel batentzako adina bazen, eta baita jateko pixka bat erosteko ere —esan zuen Kimek, jauzi batez bere lekura itzuliz—.Begira, badator eguna!

Punjab osoa bere aberastasunean ageri zen eguzki ederraren distirapean.

— Zein ibai daukazue Benaresen? —galdetu zien bat-batean lamak bagoiko guztiei.

— Ganges ibaia daukagu —erantzun zuen bankariak, barre txikiak bukatu zirenean.

— Eta zein beste?

— Ganges ibaiaz beste?

— Egia esan, sendatzeko gaitasuna duen ibai batez ari nintzen.

— Ganges duzu hori. Han bainatzen dena garbitu egiten da, eta Jainkoengana joaten.

— Garbitu, bai —murmurikatu zuen lamak—, Jainkoengana berriz itzultzeko. Eta aurrera egiteko bizitzen jarraipenean, oraindik ere Gurpilean lotuta —buruari eragin zion, ernegatuta—. Nork egin zuen orduan Ganges ibaia hasieran?

— Jainkoek. Zein erlijiotakoa zara zu? —galdetu zuen bankariak, harrituta.

— Legearen jarraitzaile naiz. Lege Apartarena. Beraz, Jainkoek egin zuten Ganges ibaia. Zein eratako Jainkoak ziren?

Harriturik begiratu zion bagoiak. Sinestezina zitzaien norbaitek Gangesen berri ez izatea.

— Zein... zein da zure Jainkoa? —esan zuen azkenean diru-mailegariak.

— Entzun! —esan zuen lamak, arrosarioa eskuz aldatuz—. Entzun! Berataz ari naiz eta orain hizketan! Urdueraz hasi zen Buda jaunaren istorioa kontatzen, baina, gogoetek bultzatuta, tibeterara jo zuen eta baita Budaren bizitzari buruzko liburu txinatar bateko zenbait testutara ere.

Lama urdueraz hasi zen berriz hizketan, atzerrian zegoela gogoratuta.

— Entzun ezazue gure Jaunak arkutik askatu zuen Geziaren istorioa —esan zuen.

Hura askoz gustukoagoa zuten, eta adi-adi egon ziren kontatzen zuen artean.

— Eta orain, Indiako jende hori, Ibai horren bila noa. Ezagutzen al duzue lagungarri gerta lekidakeen ezer?

— Ganges da, Ganges bakar-bakarrik, bekatua garbitzen duena —murmurikatu zuten denek bagoian.

Eta azkenean, nekatuta, erdi lotan eta hautsez estalita, heldu ziren Umballako geltokira.

— Gu hemen geratzen gara, lege auzi bat daukagu eta —esan zion nekazariaren emazteak Kimi—. Senarraren lehengusuaren anaia gazteenaren etxean egongo gara. Yogiarentzat eta zuretzat ere bada lekurik patioan. Zera... emango al dit bere bedeinkapena?

— Entzun, maisu! Urrezko bihotza duen emakume batek lekua emango digu gauerako.

Lamak burua makurtu zuen, bedeinkapena emanez.

— Orain —esan zuen, lama leku seguruan zegoenean, itxurazko etxe hindu baten barneko patioan, kuartelen atzealdean—, kanpora joango naiz pixka batean, zera... jateko zerbati erostera azokan. Ez mugitu ni itzuli arte.